



www.vitoria-gasteiz.org

Behin-behineko kontratazio zerrenda sortzeko deialdia

Lanpostua: Hiri Ekologiako Goi Mailako Teknikaria

Lehen ariketa

TEST MOTAKO GALDETEGIA

- ***50 galdera***
- ***4 erantzun alternatiba***
- ***Denbora gehienez: 60 min.***

A

eredua

Ez ireki liburuxka epaimahaikoek esaten dizuten arte

1.- Vitoria-Gasteiz European Green Capital izan da. Zein urtean izan zen?:

- a) 2011
- b) 2012
- c) 2013
- d) 2014

2.- Eratzun Berdeak balio ekologiko eta paisajistiko handia du, eta bertako espazio batzuk Garrantzi Komunitarioko Leku izendatu dira Natura 2000 Sarearen barruan, espazio horiek dituzten natur balio garrantzitsuentatik. Eratzun Berdeko espazioetatik, zeintzuk izendatu dira Garrantzi Komunitarioko Leku?:

- a) Armentziako basoa
- b) Salburua
- c) Gasteizko Mendiak
- d) Aurreko guztiak

3.- Vitoria-Gasteizko Klima Aldaketaren aurkako Borroka Planean (2010-2020), zein urte hartzen da oinarritzat hurrengo urteekin konparazioak egiteko?:

- a) 1990
- b) 2006
- c) 2008
- d) 2012

4.- Zein izan zen Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak 2011 eta 2014 urteen artean parte hartu zuen Naviki proiektuaren helburua?:

- a) Europa mailan energiaren erabilera arrazional eta adimentsuagoa sustatzea, horretarako bizikleta bidezko mugikortasuna erraztuko duen bizikleten bideratzaile transeupar bat garatuz.
- b) Wikiloc plataformaren alternatiba izango den beste plataforma bat garatzea, Europako herritarrek bizikleten ibilbideak partekatu ahal ditzaten
- c) Europa mailako bideratzaile bat sortzea, bizikletentzako, garraio publikoarentzako eta motordun ibilgailuentzako ibilbide seguruenak eta gutxien kutsatzen dutenak ezagutu ahal izateko
- d) Europa mailan bizikleta ibilbideak partekatzeko aplikazio bat sortzea *smartphone* motako telefonoetarako

5.- Vitoria-Gasteiz ingurumen alorreko hainbat sare eta ekimenekin egin du bat azken urteotan. Hurrengo sare eta ekimenetatik, zeinek ez du bere helburuen artean naturaren eta bioaniztasunaren kontserbazioa?:

- a) FEDENATUR
- b) EUROSITE
- c) Aalborg + 10 gutuna
- d) CIVITAS ekimena

6.- Vitoria-Gasteizko Eskolako Agenda 21 honako hau da:

- a) XXI. mendea ospatzeko ikasleen artean banatzen den agenda bat
- b) Vitoria-Gasteizko 21 ikastetxeri zuzendutako eskolako ingurumen programa bat
- c) Hezkuntza alorreko eragileak Vitoria-Gasteizko Agenda 21aren prozesuan inplikatzera zuzendutako ekimen bat
- d) Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan ingurumena sustatzera zuzendutako 21 ekintzen agenda bat

7.- Europako Hiriburutza Berdearen testuinguruan, Vitoria-Gasteizko Udalak "Etorkizunaren sustraiak" proiektua jarri zuen abian. Zein da ekimen horren funtsa?:

- a) Eratzun Berdean zuhaitzak eta zuhaixkak landatzera zuzendutako kanpaina bat da, herritarren eta enpresa laguntzaileen eskutik 250.000 zuhaitz eta zuhaixka landatzeko helburua duena
- b) Herritarren inplikazioarekin eta parte-hartzearekin, hiriko auzo guztietan lorategi eta baratze komunitarioak sortzeko asmoa duen ekimen bat da
- c) Hiriaren inguruan dagoen Eratzun Berdearen antzekoa den beste eratzun berde bat hiriaren barruan egokitze helburua duen proiektu bat da, horretarako 250.000 zuhaitz eta zuhaixka landatuko direlarik
- d) Olarizuko Lorategi Botanikoaren proiektuaren baitan zuhaitzak eta zuhaixkak landatzera zuzendutako kanpaina herrikoi bat da

8.- ¿Zein da Ingurumen eta Espazio Publikoko Sailak eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak parte hartzen duten IRRIGESTLIFE proiektuaren helburua?:

- a) AMVISaren sarea informazio teknologia berrietara eta Geografia Informazioko Sistemetara egokitzea ahalbidetuko duen ureztatze sistema adimentsu bat sortzea
- b) Hiriaren ureztatze sistema Eratzun Berde osora hedatzea ahalbidetuko duen ureztatze sistema adimentsu bat sortzea
- c) Hiriaren ureztatzean ur kontsumoa % 20 arte aurrezte ahalbidetuko duen ureztatze sistema bat sortzea
- d) Hiriko lorategietan erabilitako uraren kontsumoan aurrezte esanguratsua lortuko duen ureztatze sistema adimentsu bat sortzea

9.- Zeintzuk dira Vitoria-Gasteizen gehien erabilitako mugikortasun moduak, gehien erabilitakotik gutxien erabilitakora ordenatuta?:

- a) Autoa/motorra, oinezkoa, bizikleta, garraio publikoa
- b) Autoa/motorra, oinezkoa, garraio publikoa, bizikleta
- c) Oinezkoa, autoa/motorra, bizikleta, garraio publikoa
- d) Autoa/motorra, garraio publikoa, oinezkoa, bizikleta

10.- Hurrengoetatik, zein ez da Europar Batasunaren finantziario programa bat?:

- a) URBACT
- b) Intelligent Energy Europe
- c) LIFE
- d) IDAE

11.- Hurrengo helburuetatik, zein ez da Mugikortasun Iraunkorren eta Espazio Publikoaren Planaren helburu nagusietako bat?:

- a) Moduen banaketaren joera aldatzea, automobilaren erabilera murriztuz eta bidaiariak garraio publikora eta bizikletara eramanez
- b) Eguneroko beharrak betetzeko behar diren joan-etorrien kopurua murriztea
- c) Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunerako sare funtzionalak sortzea
- d) Hiriko aparkalekuen kopurua gutxitzea autoen bidezko mugikortasuna murrizteko

12.- Hiriko berdeguneen funtzionaltasun ekosistemikoak handitzeko asmoz, Vitoria-Gasteizko Udalak Hiri Azpiegitura Berdeko Sistema bat eratzeko proposamena egin du. Sistema horrek honako elementu nagusiak ditu:

- a) Nukleo espazioak, nodoak eta konektoreak
- b) Nodoak eta konektoreak
- c) Hiriko parkeak eta pasealeku arboladunak
- d) Udalarenak diren lursail hutsak, hiriko parkeak eta hiri inguruko parkeak

13.- Vitoria-Gasteizko Klima Aldaketaren aurkako Borroka Planean (2010-2020) hainbat sektoreen energia kontsumoa eta igorpenak analizatu dira. Hurrengo sektoreetatik, zein ez da analizatu?:

- a) Industrialia
- b) Etxebizitzena
- c) Garraioa
- d) Lehen sektorea

14.- Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21aren urteroko buletinean hiriko kutsatzaile nagusiak analizatzen dira. Hurrengo kutsatzaileetatik, zein ez da analizatzen?:

- a) SO₂
- b) NO₂
- c) O₃
- d) PM_{2,5}

15.- Basaldea proiektua:

- a) 65 urtetik gorako pertsonentzat da
- b) Aisialdiko baratzeak sortzeko proiektu bat da
- c) Nekazaritza ekologikoaren sektorean enpresak sortzea laguntzen du
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira

16.- Ekosistemek gizartearen aberastasun, segurtasun, osasun eta ongizaterako ondasun eta zerbitzu esentzial eta estrategikoak ematen dituzte. Nazio Batuek 2005. urtean Milurteko Ekosistemen Ebaluazioaren txostena argitaratu zuen, bertan ekosistemen zerbitzuak definitu zituen "gizakiek ekosistemetatik eskuratzen dituzten onura" bezala eta honako kategorია hauek bereiztu zituen:

- a) Euskarrikoak, hornidurakoak, erregulaziokoak eta kulturalak
- b) Ingurumenekoak, gizartekoak eta ekonomikoak
- c) Klima aldaketara moldatzekoak eta klima aldaketa arintzekoak
- d) Hirikoak, landa eremukoak eta lurraldekoak

17.- Zer dira superetxadiak?:

- a) Hiriko kaleak bi taldetan (lehentasunezko bideen oinarrizko sarea eta barneko kaleak) hierarkizatzeke erabiltzen diren etxadi multzokatzeak dira
- b) Auzokideenak ez diren ibilgailuen sarrera debekatzen diren etxadi multzokatzeak dira
- c) Autoei abiadura mugak ezartzea helburutzat dituzten etxadi multzokatzeak dira
- d) Mugikortasuna eta espazio publikoa hobetzea eta etxebizitzak birgaitzea helburutzat dituzten etxadi multzokatzeak dira

18.- Vitoria-Gasteizko Etxe Berdeen proiektuaren helburua honako hau da:

- a) Etxebizitzetan landare apaingarrien erabilera sustatzea
- b) Etxebizitza eraginkorrago eta ekologikoagoak lortzea
- c) Etxebizitzen fatxadetan kolore berdearen erabilera sustatzea
- d) Familien artean Green Capital kontzeptua zabaltzea

19.- Vitoria-Gasteizko Klima Aldaketaren aurkako Borroka Planean (2010-2020), zein zen 2006. urtean energia kontsumo handiena zuen sektorea?:

- a) Industrialak
- b) Etxebizitzena
- c) Garraioa
- d) Lehen sektorea

20.- 2015eko otsailaren 13an Vitoria-Gasteizko udalerriko Bioaniztasuna Kontserbatzeko Estrategia onartu zen. Estrategia 123 neurritz dago osatuta, udalerriko bioaniztasun galera gelditzeko eta bertako habitatak eta espezieak kontserbatzeko. Estrategia horretan, zein adierazle kalkulatu nahi da 3 urtetik behin bioaniztasunaren kontserbazio egoera eta estrategiaren neurrien eraginkortasuna ebaluatzeke?:

- a) IUCNren Zerrenda Gorriko indizea (RLI)
- b) Planeta Bizia indizea (WWF eta ZSL)
- c) Tokiko Bioaniztasunaren Singapur indizea
- d) Hegaztien ugartasun indizea

21.- Vitoria-Gasteizko Agenda 21aren buletinean aztertzen den alor tematikoetako bat industria da. Zein adierazle erabiltzen da alor horretako iraunkortasuna ebaluatzeke?:

- a) Industriaren ur eta energia kontsumoa
- b) Hondakin toxiko eta arriskutsuen sorrera
- c) Ingurumen araudia ez betetzeagatik espediente jarri dieten enpresen kopurua
- d) Ingurumen kudeaketako ziurtagiria duten enpresen kopurua

22.- Herritarren parte hartzerako prozesuek, ongi funtziona dezaten, honako hauen parte hartzea behar dituzte:

- a) Bitartekariak eta erraztaileak
- b) Ingurumen alorreko begirale eta irakasleak
- c) Ikastetxeetako zuzendariak eta ikasleak
- d) 60 urtetik gorako pertsonak

23.- Olarizuko Lorategi Botanikoaren arboretoak honako landare hauek ditu:

- a) Iberiar penintsulako zuhaitz eta zuhaixkak eskusiboki
- b) Mundu osoko landare apaingarriak
- c) Europako basoetako landareak
- d) Asiako hezeguneetako landare belarkarak

24.- Vitoria-Gasteizko garraio publikoko modu desberdinen artean (TUVISAko autobusak eta EuskoTranen tranbiak) egin daitezkeen garraio aldaketetan, honako zein baieztapen da gezurra?:

- a) Autobusen arteko lehen aldaketa doakoa da, bigarren aldaketatik aurrera ordaindu egin behar da
- b) Erabiltzaileak beti balioztatu beharko du bere txartela, baita autobus aldaketaren kostua 0 eurokoa denean ere
- c) Aldaketa egiteko denbora muga 50 minutukoa da lehen balioztatzea egiten denetik
- d) Autobusaren eta tranbiaren arteko aldaketaren kostua 2 txartelen prezioen arteko diferentzia da

25.- Zein da Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak parte hartzen duen ICT4EVEU proiektuaren helburua?:

- a) Ibilgailu elektriko bidezko mugikortasuna sustatzea
- b) Hiriko eta hiri inguruko berdeguneetan teknologia berrien erabilera sustatzea
- c) Garraio modu iraunkorren erabilera sustatzea
- d) Hiri plangintzako politikak finkatzeko tresna interaktiboaren erabilera sustatzea

26.- Vitoria-Gasteizko Klima Aldaketaren aurkako Borroka Planean (2010-2020), zein da berotegi efektuko gasen igorpenak murrizteko helburua 2020rako, oinarritzat hartutako urtean zegoenarekin alderatuta, udalerrirako, eta murrizketa eta ekoizpen ekintza guztiak batuta?:

- a) % 20
- b) % 25,7
- c) % 34,5
- d) % 56

27.- Honako eraikinetatik, zeinek ez dauka biomasa galdara bat instalatuta?:

- a) Olarizuko etxaldea, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren egoitza dena
- b) Ibaiondo gizarte etxea
- c) Udaletxea (Plaza Berrian)
- d) Mendizorrotzeko igerileku estaliak

28.- Zein udal arauditan daude erregulatuta zuzentzetatik eraikinetara egon behar den distantziari buruzko zortasunak?:

- a) Berdeguneetako erabilerak erregulatzen dituen ordenantza
- b) Hiriko zuzentzetak kudeatu eta babesteko ordenantza
- c) Berdeguneak sortzeari buruzko ordenantza
- d) Vitoria-Gasteizko hiri zuzentzen plan zuzentzailea

29.- Vitoria-Gasteizen mugikortasun iraunkorra sustatzeko abian jarritako ekintzen artean, zein ez da CIVITAS ekimenean finantzatutako 9 ekintzetako bat?:

- a) Garraio publikoko sare berri baten sorrera
- b) Oinezkoentzako eta bizikletentzako sareen sorrera
- c) Gidatze eraginkorreko ikastaroak
- d) Mugikortasun iraunkorraren sustapena ikastetxeetan

30.- Hurrengo udal plan edo estrategietatik, zeinek dauka erreferentziako funtsezko markotzat Aalborg+10 konpromisoak?:

- a) Alkateen Ituna
- b) Agenda 21aren Bigarren Tokiko Ekintza Plana (2010-2014)
- c) Vitoria-Gasteizko udalerrian Bioaniztasuna kontserbatzeko Estrategia
- d) Vitoria-Gasteizko udalerriko Nekazaritza Garapen Iraunkorrerako Estrategia

31.- Zein da Futura 2013-2017 planaren helburu nagusia?:

- a) Hiriko saneamendu sarea optimizatzea
- b) Hirian uraren erabilera eta kudeaketaren eraginkortasuna sustatzea esparru horretan inplikaturako eragile guztien artean
- c) Ur ihesen lokalizazio sistema hobetzea, ur edangarriaren banaketa sarearen errendimendua hobetzeko
- d) Hiriko lorategietan erabilitako uraren kontsumoan aurrezte esanguratsua lortuko duen ureztatze sistema adimentsu bat sortzea

32.- Hurrengo neurrietatik, zein ez da funtsezkoa trafiko lasaituko kaleen ("kale lasaituen") sorrerarako?:

- a) Bizikleta bidezko konektagarritasuna hobetzea
- b) Bide publikoko erabiltzaileei kalea lasaituta dagoela adieraziko dien seinale espezifikoaren instalazioa
- c) Galtzada estutzea hiri altzariak (edukiontzia, etab.) erabiliz
- d) Autoen aparkalekuak kentzea

33.- Vitoria-Gasteizko Klima Aldaketaren aurkako Borroka Planean (2010-2020), zein esparru ez da hartzen udalaren eskumen zuzenakoa?:

- a) Ziklo hidrologikoa
- b) Hondakinen kudeaketa
- c) Udal ekipamendu eta zerbitzuak
- d) Garraioa

34.- Ur edangarriaren banaketa sarearen errendimendua ur edangarriaren banaketaren eraginkortasuna ebaluatzen du, eta sarean gertatzen diren ihesez gain, iruzurrezko hargunak, erregistratu gabeko baimendutako biltzeak edo kontagailuen zenbatze okerrak bezalako beste parametro batzuk barne hartzen ditu. Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21aren 2014. urteko buletinaren arabera, errendimendu hori honako hau izan zen 2008 eta 2013 artean:

- a) % 80tik beherakoa
- b) % 90tik gorakoa
- c) % 85etik beherakoa
- d) % 85etik gorakoa

35.- Zein hondakin mota onartzen da hiriaren Alde Zaharrean instalaturako bilekta pneumatikoko hori koloreko edukiontzietan?:

- a) Papera-kartoia eta etxeko ontziak
- b) Papera-kartoia soilik
- c) Etxeko ontziak eta beirak
- d) Aurreko hiru erantzunak ez dira zuzenak

36.- Zenbat dezibelio onartzen dira legalki etxe barruetan etxebizitzaren zonetan, balio orokor gisa, Zarata eta Bibrazioen kontrako udal Ordenantzaren arabera (ALHAO, 137. zenbakia, 2010/12/01eko)?:

- a) Gehienez 25 dB-A gauez (22:00etatik 07:00etara) eta 32 dB-A egunez (07:00etatik 22:00etara)
- b) Gehienez 65 dB-A bai gauez (22:00etatik 07:00etara) zein egunez (07:00etatik 22:00etara)
- c) Gehienez 55 dB-A gauez (22:00etatik 07:00etara) eta 32 dB-A egunez (07:00etatik 22:00etara)
- d) Gehienez 55 dB-A gauez (22:00etatik 07:00etara) eta 45 dB-A egunez (07:00etatik 22:00etara)

37.- Autoen aparkalekuekin lotutako hurrengo neurrietatik, zein ez da aplikatu Vitoria-Gasteizen?:

- a) Lur gaineko aparkaleku erregulatuaren (TAO) prezioak igotzea
- b) TAO guneetan aparkatzean lehen 15 minutuak doakoak izatea
- c) Udalak kudeatutako lurrazpiko aparkalekuen prezioak igotzea, TAOaren prezioekin berdintzeko
- d) Lurrazpiko aparkaleku berriak sortzea

38.- Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21ak hirigintza eta lurraldea ebaluatzeko erabiltzen duen adierazleetako bat lurraren erabilera iraunkorra da. Adierazle hori eskuratzeko, honako hau kalkulatzeko da:

- a) Lurzoru artifizializatuaren eta urbanizagarriaren ehunekoa
- b) Lurzoru abandonatuaren eta potentzialki kutsatuaren ehunekoa
- c) Lurzoru babestuaren ehunekoa
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

39.- Zer ez da onartzen hondakinen gaikako edukiontzi horietan?:

- a) Janarien eta edarien lata metalikoak
- b) Plastikozko jostailuak
- c) Brik-ak
- d) Edarien plastikozko botilak

40.- Zein da Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21aren prozesuaren barruan ingurumen alorreko gaiak aztertzeke 2000. urtean sortu zen herritarren parte-hartze organoa?:

- a) Gizarte Kontseilua
- b) Ingurumeneko Sektore Kontseilua
- c) Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Foroa
- d) Iraunkortasun Behatokia

41.- Zein da Vitoria-Gasteizko helburu nagusia bizikleta bidezko mugikortasunaren alorrean?:

- a) Bizikletaren erabilera handitzea Europako batez bestekora iristeko 2030. urtean
- b) Bizikletaren erabilera handitzea moduen banaketaren % 15era iristeko 2020. urtean
- c) Bizikleta bideen kilometro kopurua handitzea 200 kilometroetara iristeko 2025. urtean
- d) Bizikleta bideen kilometro kopurua handitzea 180 kilometroetara iristeko Bizikleta Mugikortasunaren Gida Plana amaitzen den urtean

42.- Zer da Vitoria-Gasteizko Udala garatzen ari de teknozoruen proiektua?:

- a) Lurzoruaren propietateak hobetzeko medeapen organikoak entseatzeko ikerketa proiektua
- b) Lurzoruaren propietate fisikoak hobetzeko eta higadura prozesuen aurrean duen erresistentzia handitzeko ikerketa proiektua
- c) Hondakinen tratamenduko udal instalazioetan ekoizten diren azpiproduktuetatik abiatuta lurzoru artifiziala sortzeko ikerketa proiektua
- d) Hidrokarburoez kutsatutako lurzoruak kimikoki deskutsatzeko metodoen inguruko ikerketa proiektua

43.- Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21aren urteroko buletinean hiri hondakin solidoen birziklapenaren adierazle bat ematen da. Zeintzuk dira adierazle hori kalkulatzeko 2008tik erabiltzen diren hondakin frakzioak?:

- a) Paper-kartoiaren bilketa selektiboak
- b) Pilen bilketak
- c) Bolumen handiko hondakinen bilketa espezifikoa
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira

44.- Zein da, udalerriko azaleratik, garraio modu bakoitzari eskaintzen zaioen azalera, mugikortasunari dedikatutako azalera osotik? (Balio borobilduak, 2013ko datuak)

- a) % 48 motordun ibilgailu pribatuentzako, % 44 oinezkoentzako, % 6 bizikletentzako eta % 2 garraio publikorako
- b) % 67 motordun ibilgailu pribatuentzako, % 27 oinezkoentzako, % 3 bizikletentzako eta % 3 garraio publikorako
- c) % 59 motordun ibilgailu pribatuentzako, % 35 oinezkoentzako, % 5 bizikletentzako eta % 1 garraio publikorako
- d) % 42 motordun ibilgailu pribatuentzako, % 48 oinezkoentzako, % 7 bizikletentzako eta % 3 garraio publikorako

45.- Nola tratatzen da Vitoria-Gasteizen selektiboki bildutako hiri hondakin solidoen frakzio organikoa?:

- a) Gardelegiko hondakindegira bidaltzen da
- b) Tratamendu Mekaniko Biologikoko instalaziora bidaltzen da
- c) Garbigune batera bidaltzen da
- d) Kudeatzaile baimendu bati bidaltzen zaio zuzenean

46.- Orokorrean hiru ingurune ekologiko nagusi daude Vitoria-Gasteizko udalerrian: Arabako lautada, Badaia eta Arratoko mendilerroak eta Gasteizko mendiak. Horietako zeinetan da landaredi nagusia karraskadia eta haren segidaren etapak?:

- a) Arabako lautadan
- b) Badaia eta Arratoko mendilerroetan
- c) Gasteizko mendietan
- d) Hiru horietako batean ere ez

47.- Zein adierazle erabiltzen da (edo dira) Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21ean Vitoria-Gasteizko ibaien egoera ekologikoa ezagutzeko?:

- a) BMWP' indizea
- b) Shannon-Wiener bioaniztasun indizea (H)
- c) Uren kalitatearen indize sinplifikatua (ISQA)
- d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira

48.- Zein da Vitoria-Gasteizko Bizikleta Mugikortasunaren Gida Planean "bizikleta erreia" kontzeptuaren definizioa?:

- a) Motordun trafikoarentzako erreien alboan, galtzadaren kota berean, bereizi gabe edo zintarri bidez berezita, dagoen bizikleta bidea
- b) Bizikletaz ibiltzea espresuki seinaleztatuta dagoen zirkulazio erreia, bai espaloien gainean edo oinezkoen espazioetan, galtzadaren gainean edo bide publikoaren beste edozein tokitan
- c) Espaloi gainean dagoen bizikleta bidea, zoruan markatutako seinaleen bitartez oinezkoen eta motordun ibilgailuen joan-etorrietatik berezitatua
- d) Bizikletentzako eskusiboa den bizikleta bidea, normalean kolore ezberdineko zoladuraz eraikitakoa espaloien gainean, parkeetan edo urbanizatu gabeko espazioetan

49.- Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21aren urteroko buletineko hiri hondakin solidoen adierazlea egonkor mantendu da 2010. eta 2013. urteen artean. Zein baliotan (zenbaki borobildua) mantendu da?:

- a) % 15
- b) % 23
- c) % 37
- d) % 53

50.- Vitoria-Gasteizko udalerriko ornodun faunaren lau espeziek soilik dute ofizialki onartutako kudeaketa plana. Hurrengo zein espeziek du ofizialki onartutako kudeaketa plana?:

- a) Bisoi europarra
- b) Baso igel jauzkaria
- c) Ur benarriza
- d) Koba saguzarra